

**AGINDUA, 2026KO IRAILAREN 7KOA, ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILBURUARENA, ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILAREN 2026-2029rako DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA**

Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek garatu beharreko dirulaguntzen jarduera aldeztu aurretik planifikatu behar da, eta, horretarako, dagokion Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartuko da (DPE).

Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak jaso behar ditu planak, horiek lortzeko behar den epearekin eta aurreikusi daitezkeen kostuekin batera, bai eta planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten finantzaketa-iturriak eta helburuekin lotutako ekintzak eta adierazleak ere. Nolanahi ere, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende egongo da.

Aurrekoa betetzeko, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak, 2026ko urtarrilaren 20ko Aginduaren bidez, Sailaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.

Gainera, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2026ko apirilaren 29ko Aginduaren bidez, aipatutako plana aldatu zen, Zientzia Politika Zuzendaritzaren barruan dagoen *Basque Visiting Fellowship* programari dagokion dirulaguntza-lerroaren zenbatekoak aldatzeko.

Aldaketa hau helburu berriei erantzuteko egin da, hala nola gizartean edo ekonomian eragina duen ezagutza sortzea, baliozkotzea, transferitzea eta erabiltzea, eta ikerketa aurreratuko unibertsitate-zentroen garapena babestea, ikerketa-jarduera areagotzeko, nazioarteko posizionamendua hobetzeko eta deialdi lehiakorretan itzulera handitzeko.

Ondorioz, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak emandako eskumenak baliatuz, eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 23ko 494/2024 Dekretuarekin lotuta, honako hau,

EBAZTEN DUT

Lehenengo.- Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren 2026-2029ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, dirulaguntzen bi lerro berri gehitzeko.

Lehenik eta behin, 3. dirulaguntza lerroa sortu da «Berrikuntzako Itsasargiak Programa bultzatzeko laguntzak, Erronkak eta Plataformak modalitateetan» Berrikuntza Zuzendaritzaren barruan, aurrekontu-konpromiso hauekin:

Kapitulua	2026	2027	2028
VII	8.115.000€	5.500.000€	5.500.000€





Bigarrenik, 1. dirulaguntza-lerroa sortu da, «2026-2028 aldirako ikerketa aurreratuko unibertsitate-zentroei laguntzak emateko deialdia» egiteko, Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren barruan, honako aurrekontu-konpromiso hauekin:

Kapitulua	2026	2027	2028
VII	1.200.000€	1.200.000€	1.200.000€

Bigarrenena.- Agindu hau Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren webgunean argitaratzea publizitatea emateko. Era berean, aplikatu beharko dira informazioaren eta gardentasunaren arloan ordenamendu juridikoan une bakoitzean aurreikusitako gainerako xedapenak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 7a

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS



I. ERANSKINA

I. ERANSKINA: Berrikuntza Zuzendaritza

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK
Sailburuordetza: Zientzia eta Berrikuntza
Zuzendaritza: Berrikuntza
Denbora-esparrua: 2026-2028
1. Helburu estrategikoa: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eta Euskal Zientzia Sistemako erakundeentzako dirulaguntzak eta lankidetzahitzarmenak.
3. Dirulaguntza-lerroa: Berrikuntzako Itsasargien Programa bultzatzeko laguntzak, Erronkak eta Plataformak modalitateetan.
Organoa: Berrikuntza Zuzendaritza
Programa: 5414 Berrikuntza Funtsa
Helburuak: Berrikuntzako Itsasargiekin lerrokatutako eragin handiko lankidetzaproiektuak eta plataforma zientifiko-teknologikoak sustatzea, ezagutzaren sorreratik gizarte- edo ekonomia-eragina izango duen berrikuntzarako trantsizioa bizkortzera bideratuta.
Ekintzak:

Berrikuntzako Itsasargiekin lerrokatutako eragin handiko lankidetza-proiektuen (Erronkak) eta plataforma zientifiko-teknologiko estrategikoen (Plataformak) finantzaketa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen, enpresen eta beste eragile garrantzitsu batzuen arteko lankidetza indartzera bideratuta, bai eta gizarte- edo ekonomia-eragina izango duen ezagutzaren sorrera, baliozkotzea, transferentzia eta aplikazioa sustatzera ere.

Adierazleak:

Diruz lagundutako ekintza kopurua: 4

Parte hartu duten entitateen kopurua: 16

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2026	2027	2028
VII	8.115.000€	5.500.000€	5.500.000€

Zein sektoretara zuzentzen den:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eta Euskal Zientzia Sistemako eragileak.

Esleipen-prozedura:

Agindua.

II. ERANSKINA

II. Eranskina: Zientzia Politikako Zuzendaritza

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK
Sailburuordetza: Zientzia eta Berrikuntza
Zuzendaritza: Zientzia Politika
Denbora-esparrua: 2026-2028
1. Helburu estrategikoa: Ikerketa-jarduera sustatzea
3. Dirulaguntza-lerroa: 2026-2028 aldirako unibertsitateko ikerketa aurreratuko zentroentzako laguntzak emateko deialdia.
Organoa: Zientzia Politikako Zuzendaritza
Programa: 5412 Ikerketa
Helburuak: Unibertsitateko ikerketa aurreratuko zentroen garapena babestea, haien proposamenen eta emaitzen ebaluazioan oinarritutako finantzaketa esleituz, bereziki haien ekoizpen zientifikoa indartzea eta kanpoko finantzaketa lehiakorra eskuratzeko gaitasuna hobetzea xede hartuta.
Ekintzak:

Zentro horien garapena sustatzea, alde batetik, funtzionamendu-egonkortasuna eta epe ertaineko plangintza bermatzeko egiturazko beharretara bideratutako finantzaketa konbinatuz, eta, bestetik, ikerketa-jarduera areagotzera, nazioarteko posizionamendua hobetzera eta deialdi lehiakorretan lortutako finantzaketa handitzera bideratutako jarduketak bultzatuz.

Adierazleak:

Zentro kopurua: 4

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2026	2027	2028
VII	1.200.000€	1.200.000€	1.200.000€

Zein sektoretara zuzentzen den:

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateak, baldin eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean Unibertsitateetako Ikerketa Egituren kategorian egiaztatuta badaude eta unibertsitateko ikerketa aurreratuko zentro horiek atxikita badituzte.

Esleipen-prozedura:

Agindua.